



**AGINDUA, 2020KO APIRILAREN 29KOA, ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA, ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN 2020. URTERAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUEN AGINDUA BIGARRENEZ ALDATZEN DUENA.**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1. artikulua xedatzen duenez, *“administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzen ezarpena proposatzen duten beste edozein erakundeek dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte, aldez aurretik, hura aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, bai eta horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta haiek finantzatzeko iturriak ere; betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla bermatuta”*. Estatuko oinarrizko legedia da manu hori.

Aurrekoa betetze aldera, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren 2020. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen, 2019ko azaroaren 22ko Aginduaren bidez.

Horren ondoren, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak “Lagunkoitasun Jardunbide Egokien Saria” 2020an ematea proposatu zuen, lehia-konkurrentziako prozedura baterako deialdi baten bitartez, berrikuntzagaratik eta eraginkortasunagaratik nabarmentzen diren jardunbide egokiei balioa emateko. Halaber, haren bidez, publikoki aitortu nahi dira zenbait entitate publiko eta pribatu, hain zuzen ere, zahartzen ari diren pertsonen gauzak errazteko inguruneak sortzen dituztenak, lagunkoitasunaren aldetik, beren berrikuntza eta efikaziagaratik nabarmentzen diren praktikak garatuz.

Ekimen hori sartze aldera, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2020ko martxoaren 5eko Agindua onartu zen, zeinaren bidez Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren 2020. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzen baita.

Gaur egun, salbuespenezko egoera berri bat bizi dugu: COVID-19 koronabirusak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera, bai lurralde mailan, bai nazioartean, zeinaren ondorioz, Osasunaren Mundu Erakundeak egoera nazioarteko pandemiatzat jo baitu.

Hala, koronabirusaren transmisioa geldiarazten laguntzeko aparteko eta premiazko neurriak hartu behar direla nabarmendu da, eta, neurri horien artean, dirulaguntzen 3. lerroaren zenbatekoa handitzea proposatu du Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak: Gizarte-larrialdietarako laguntzei, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legean jasota baitaude, b) azpiapartatu bat gehituko zaie, COVID-19aren eraginak arintzeko helburuz; 16.000.000,00 euro bideratuko dira horretarako.



Beste alde batetik, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak 33B) laguntza-lerroa sortzea proposatu du zuzendaritza horretan, lanaldia egokitu edo aldatu behar izan duten familiei egoera horrek ekarritako diru-sarrereren galerari berehalako erantzuna emateko, egokitzapen edo aldaketa hori honegatik izan bada: seme-alabak (haien adinagatik), mendeko pertsonak edo COVID-19 koronabirusa dela eta gaixorik dauden pertsonak (kutsatuak edo isolatuak) laguntzeko, artatzeko eta zaintzeko betebeharrak bere gain hartzeko.

Kontua da, azken finean, egungoa bezalako egoera koiunturalak ez izatea eragin negatiborik, egiturazkoa eta denboran iraunkorra, familien diru-sarreretan.

Azaldutakoaren ondorioz, eta Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak emandako eskumenen arabera (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen), eta apirilaren 11ko 75/2017 Dekretuarekin lotuta (Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena), honako hau

## **EBAZTEN DUT**

**Lehena.-** Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren 2020. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, honela aldatu ere:

1) b) azpiapartatua gehitzea Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren 3. lerroari, gizarte-larrialdietarako laguntzetan 16 milioi euro gehiago ezarriz, COVID-19 koronabirusaren ondorioak arintzeko.

2) Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren 33B) dirulaguntza-lerroa gehitzea; hain zuzen ere, lanaldia egokitu edo aldatu beharrak familiei ekarri dien diru-sarrereren galerari berehalako erantzuna emateko, baldin eta egokitze edo aldaketa hori seme-alabak (haien adinagatik), mendeko pertsonak edo COVID-19 koronabirusak erasandako gaixoak (kutsatuak edo isolatuak) laguntzeko, artatzeko eta zaintzeko izan bada. Lerro horri 15 milioi euro esleitzen zaizkio.

Bi lerro horiek agindu honen eranskinetan deskribatzen dira.

**Bigarrena.-** Agindua argitara dagin agintzea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren webgunean argitaratuz eta unean-unean antolamendu juridikoan informazioaren eta gardentasunaren arloan aurreikusten diren xedapenak aplikatuz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 29a

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,  
**BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ**

## GIZARTE ZERBITZUEN ZUZENDARITZA

### 2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

<b>1. Helburu Estrategikoa:</b> Gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren garapenean esku hartzen duten eragile guztiekin, bai instituzionalekin bai sozialekin, sare-lana bultzatzea eta indartzea.	
<b>3b) dirulaguntza-lerroa:</b> Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legeak jasotako gizarte-larrialdietarako laguntzak, COVID-19 birusak ekarritako ondorioak arintzeko.	
<b>Organoa:</b> Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza	
<b>1. programa:</b> (12291-COVID 19) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legeak jasotako gizarte-larrialdietarako laguntzak.	<b>2020</b>
<b>1. helburua:</b> Lehen mailako gizarte-zerbitzuak indartzea, beren ahaleginak kontzentratu ditzaten pertsona guztien autonomia funtzionala eta harreman-integrazioa edo integrazio komunitarioa babesteko eta sustatzeko berariazko funtzioan.	16.000.000 €
<b>1. ekintza:</b> Gizarte-larrialdiko egoerei arreta ematea. <b>1. adierazlea:</b> Bizikidetzaren unitate onuradunen kopurua: (31.000)* <b>2. adierazlea:</b> Onuradunen kopurua (65.000)	

### 3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publiko osoarekiko

<b>1. Helburu Estrategikoa:</b> Gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren garapenean esku hartzen duten eragile guztiekin, bai instituzionalekin bai sozialekin, sare-lana bultzatzea eta indartzea.	
<b>3b) dirulaguntza-lerroa:</b> Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legean jasotako gizarte-larrialdietarako laguntzak, COVID-19ak eragindako ondorioak arintzeko.	
<b>Organoa:</b> Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza	
<b>2020</b>	
<b>1. programa:</b> (12291-COVID 19) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legean jasotako gizarte-larrialdietarako laguntzak.	Zenbatekoa eurotan
4. kapitulua:	
<b>Guztira:</b>	16.000.000 €
	% 100
	16.000.000 €
	% 100

- \*Hasieran aurreikusitako balioei eusten zaie, eta ez da bizikidetzaren unitateen eta onuradunen estimaziorik egiten, egoera berria delako, COVID-19ak eragindako pandemia, hain zuzen ere, eta horrek pertsona gehiago artatzeko beharra ekar dezake, baita gizarte-larrialdietarako laguntzak kudeatzen dituzten erakundeek artatze-irizpideak berrikustea ere.

#### 4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Dirulaguntza jaso dezake(t)en sektorea(k) eta laguntza emateko prozedura.

<b>1. Helburu Estrategikoa:</b> Gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren garapenean esku hartzen duten eragile guztiekin, bai instituzionalekin bai sozialekin, sare-lana bultzatzea eta indartzea.	
<b>3b) dirulaguntza-lerroa:</b> Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legean jasotako gizarte-larrialdietarako laguntzak, COVID-19ak eragindako ondorioak arintzeko.	
<b>Organoa:</b> Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza	
<b>1. programa:</b> (12291-COVID 19) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legean jasotako gizarte-larrialdietarako laguntzak.	
Sektore hartzaileak	EAEko udalak
Laguntzak emateko prozedura	Araudi erregulatzailean ezarritako parametroen arabera banatuko dira.

## FAMILIA POLITIKAKO ETA ANIZTASUNeko ZUZENDARITZA

## 2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. Helburu Estrategikoa: COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiko egoerak familien ekonomian eragin duen inpaktu ekonomikoari erantzutea.	
33 B dirulaguntza-lerroa: Familia eta lana bateragarriak egiteko laguntza ekonomikoen laguntza osagarriak, salbuespenekoak eta aldi baterakoak.	
<b>Organoa:</b> Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza	
<b>1. programa:</b> (1291-COVID-19 funtsa) "COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriak".	<b>2020</b>
<p><b>1. helburua:</b> Lanaldia egokitu edo aldatu beharrik familiei ekarri dien diru-sarreraren galera konpentsatzea, baldin eta egokitze edo aldatze hori izan bada seme-alabak (duten adinagatik), mendekotasuna duten pertsonak edo COVID-19 koronabirusak erasan dien gaixoak (kutsatuak edo isolatuak) lagundu, artatu edo zaintzeko.</p> <p><b>1. ekintza:</b> Laguntza osagarrien espedienteak kudeatzea eta ebaztea.</p> <p><b>1. adierazlea:</b> Zenbat laguntza-eskaera aurkeztu den hauei laguntza, arreta eta zaintza emateko betebeharrak bereganatzeagatik: 14 urteik beherako seme-alabak, edo 18 urtera artekoak, dibertsitate funtzionala edo % 33ko edo hortik gorako aitortutako desgaitasuna badute (34.718 eskaera).</p> <p><b>2. adierazlea:</b> Zenbat laguntza-eskaera aurkeztu den mendekotasuna duten pertsonen laguntza, arreta eta zaintza emateko betebeharrak bereganatzeagatik (1.475 eskaera).</p> <p><b>3. adierazlea:</b> Zenbat laguntza-eskaera aurkeztu den COVID-19 koronabirusak eragindako gaixoei (kutsatuak edo isolatuak) laguntza, arreta eta zaintza emateko betebeharrak bereganatzeagatik (742 eskaera).</p>	15.000.000,00 €

**3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoak, finantzaketa publiko osoarekiko**

<b>1. Helburu Estrategikoa:</b> COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiko egoerak familien ekonomian eragin duen inpaktu ekonomikoari erantzutea.	
<b>33 B dirulaguntza-lerroa:</b> Familia eta lana bateragarriak egiteko laguntza ekonomikoen laguntza osagarriak, salbuespenekoak eta aldi baterakoak.	
<b>Organoa:</b> Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza	<b>2020</b>
<b>1. programa:</b> (12291-COVID-19 funtsa) «COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriak».	Zenbatekoa eurotan
4. kapitulua:	15.000.000,00 €
7. kapitulua:	0
<b>Dirulaguntzaren lerroa, guztira:</b>	15.000.000,00 €
	%
	% 100
	0
	% 100

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Dirulaguntza jaso dezake(t)en sektorea(k) eta laguntza emateko prozedura.

<p><b>1. Helburu Estrategikoa:</b> COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiko egoerak familien ekonomian eragin duen inpaktu ekonomikoari erantzutea.</p>		
<p><b>Dirulaguntza-lerroa:</b> Familia eta lana bateragarriak egiteko laguntza ekonomikoen laguntza osagarriak, salbuespenekoak eta aldi baterakoak.</p>		
<p><b>Organoa:</b> Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza</p>		<p><b>2020</b></p>
<p><b>1. programa:</b> (12291-COVID-19 funtsa) "COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriak".</p>	<p>15.000.000,00 €</p>	<p>% 100</p>
<p><b>Sektore hartzaileak</b></p>	<p>a) Langileen Estatuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan dauden besteren konturako langileak, administrazio publikoetako sektore publikoko lan-kontratudunak izan ezik.                  b) Kooperatiba-sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak.</p>	
<p><b>Laguntzak emateko prozedura</b></p>	<p><b>Norgehiagoka ez den prozedura.</b> Laguntza horien oinarria Familiari Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legea da, eta, bereziki, lege-testu horren II. tituluko II. kapitulua (norberaren bizitza, familia eta lana bateragarriak egiteko neurriei buruzkoa).  <b>Aurrekontuaren zenbatekoa:</b> Publikotasun-printzipioa betetze aldera, familia-politikaren arloan eskumena duen sailak jakinarazi du aurrekontu-zuzkidura esleitu dela laguntzak arautzen dituen sailburuaren aginduan bertan.  <b>Eskaerak aurkezteko epea:</b> Urtebete, alarma-egoeraren indarraldia amaitu eta biharamunetik kontatzen hasita.  <b>Baldintzak:</b> Laguntzen onuradunek, laguntzaren, arretaren eta zaintzaren hartzailearen arabera aldi berean bete behariko dituzten baldintza espezifikoak alde batera utzita, honako hauek ere bete behariko dituzte:                  Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan bizi eta errolatuta egotea diruz laguntzeko moduko jarduerak iraun bitartean.                  Horretaz gain, 2020ko martxoaren 9aren aurreko urtean etenik gabe errolatuta egotea bertan, edo, edo gutxienezko epe hori bete ezean, 5 urtez jarraian aurreko 10 urteetan.  <b>Zergatia:</b> Laguntzak jaso aurretik justifikatu behar dira laguntzak eskuratzeko baldintzak. Horretarako, eskabidea aurkeztean egiaztatu behar dira baldintzok. Nolanahi ere, laguntzak kudeatzeko eskumena duen organoak aukera izango du laguntzak arautzen dituen aginduaren helburuak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren ikuskapen- eta kontrol-ekintzak egiteko.  <b>Ebazpena:</b> Laguntza ematea –edo, hala badagokio, ez ematea– organo kudeatzailearen zuzendariaren berariazko eta banakako ebazpenaren bidez egingo da. Prozesu hori etengabe egingo da, laguntza-eskabideen jasotze-hurrenkeraren arabera.</p>	